

IKUSI



Monty Python-eko batek egina

Maria Angeles ARILLA

**Servicios muy personales**  
 Britainia Handia, 1986, Molemia  
**Zuzendaria:** Terry Jones  
**Aktoreak:** Julie Walter, Alec McCoven, Shirley Stelfox  
**Gidolilaria:** David Leland  
**Aretoa:** Petit Casino 1

Urtetan zehar, humoristaz osatutako Monty Python talde britainiarra komizitate berri baten ordezkari bihurtu zen. Euren gauza guztiak berriak ziren, nahiz eta humore ingelesaren tradizioarekin ez apuritu. Guztizari eta guztiz barre egiten ziren. Ez erlijioa, ez politika, ez instituzioak, ez eskubide ezkerreko talde politikoak, ez umeak, ez artelanak, ez sexoa, inor ez zen beraien broma argiatetik libratzen. Liburuak idazten zituzten, animaziozko benetako obra nagusiak ziren telesailetan lanegiten zuten. Baina zineak, nekeak edo urteak taldearekin akabatu zuten.

Orain, bakoitza bere aldetik, batzu zinean aritzen dira. Nahiz eta lehengo perfekzioak ez lortu, ez dute ironia utzi.

Terry Jones, «Servicios muy personales»-en zuzendaria, beraietako bat zen, eta aurretik ere taldearen pelikula batzu zuzendu zituen: barregarriena eta ondoen egindakoa, «La vida de Brian», desberdinena, «Los caballeros de la mesa cuadrada» eta arraroena, zali zatar eta jenialak nahastean dituen, «El sentido de la vida». Orain estreinatu berri dena desberdinetakoa da. Jones, David Leland gidolilaria eta zuzendaria famatuarekin batera, filme hau egiteko Londresko prostituta ezagun baten liburu autobiografikoan oinarritu zen. Bere atxilotze eta epaiketa eskandalu nazionala bihurtu zen eta egiaztatu protagonista, Cynthia Payne, bere esperientziak liburu baten kontatu zituen. Nobela, pelikula bezala, ez da eskandalu eta marmar multzoa baizik eta humorezko klabean idatzitako istorioa, bai britaniar gizartearen hipokresia buruz bai bizitzaren aurrean bakarrik borrokatu behar duen emakumearen prozesuaz.

Pelikulari, nahiz eta bi profesional onegindakoa izan (Leland, beste filme batzuren artean, «Mona Lisa»-ren gidolilaria da), erimtoa falta zaio bere estruktura sendoareen barnean. Julie Walter aktoreak ederki belatzen du emakume bizi, lotura gabeko eta beti alaiaren papiera. Baina txisteak, bromak eta putxetxe barruko eszenak irregularrak dira, filme osoa gertatzen den bezala. Istoria batzu barrea eragiten duen neurrian, beste batzu gehiegirik berarekin indarra galitzen dute; erreflexiora eramaten duten eszenak badaude, baita ironia eta txistearen erdibidean gelditzen direnak ere.

Ez da pelikula txarra, nahiz eta ez izan historiara pasatuko direnetakoa, ezta astuna ere. Halere, obra konbentzionala izan gabe ez du Monty Python taldekoek egindako beste pelikula batzuk bezala bide berriak zabalzen. «Servicios muy personales» ikusleari bietatik bat gertik liezaioke: une atsegina pasatu edo txistealaren baten krudeltasunarekin beldurtu. Denetarik dauka, barreak, asperaldiak, ironia eta errepikapenak.

ENTZUN



**BILDUMA** «Grupos andaluces de rock contra el rollo de la droga» (Pañoleta Records). Drogenaren arazo nahaste galanta da. Lehenik, drogei buruz asko hitzegiten delako baina legezkoak, batez ere alkohola, saku berean gutxitan sartuz. Honela jaun batek baino gehiago, asmo on edo txarrekin, porro ia erregabean aurkako kampaia instituzionala montatu dezake bere mahai gainean whisky bat eta habanar zigarrak dituen artean.

Dena dela Sobiet Batasunean bertan ere drogenaren aurkako rock kontzertuak antolatzeari ekin diote. Eta hemen dakarkizuegu helburu hauek

IRITZIA

Erlastarraren desafioa

**O**RAIN dela 13 bat urte inguru, Miracruz kaleko EL DIARIO VASCO-ren idazkolar zaharrena, ez dakit zertaz ari girela, nere bihotzeko lagun eta adiskide Joakin Ormaetxea zenak hauxe esan zidan: «Mirál Eso es como el caso del abejorro. Teniendo en cuenta el peso y la fuerza que tiene no debería volar. Pero, como se ve claramente, vuelan».

Garai haietan ez Joakin, ez ni, ez eta txuriurdinazalerik amorratuena ere ezin genuen amestu gure Erreala egunen batean, urte gutxi batzu geroago bakarrik, liga txapeladuna izango zenik, Bazegoen, bai, halere, asteen behin «la nueva Real» edo Erreal berri bat zegola azzimarratzen zuten kazetari bat, Luis de Andia, alegia. Baina bere esandakoa klubaren historia kaskarra, egia ofizialaren eta usteko ebidentzia batzuren kontra zihonez, «ajkintunek» erotzat jotzen zuten. Baina arrazoa zuela nabarmendu da.

Baina zergatik hasierako erlastarrarena? Zergatik intsektu lodi hori aipatu beharra? Bada Erreala, duen (edo hobeto, ez duen) egiturarekin, erabiltzen duen ekonomia eskaxarekin, sufrizten duen Atotxa zahararekin, politiko-gandik antzuan behar dituen fontakierekin eta denok dakizkiogun abar ugariengatik, ez lukeelako sekulan txapeladun izan beharko. Baina

Gorka Reizabal PATO

badela eta, seguru aski, izaten jarraitu behar duela denok onartzen dugun egia da.

Are gehiago: Barcelonaen kontra laboritotzat agertzea erlastar zaratatsua pinpilimpaxuren dantza arin eta koloreduna egitea bezala da. Barcelona, Real Madrid eta Atlético de Madrid kanporatu ondoren Kopari eustea eta lortzen badu hazainak merezi duen harrera eta oihartzuna izango du Europa guztian, dudarik gabe.

Eta Real Madridek Europako Kopa irabazten badu fita zaigun datua egiaztatua ahal izango dugu: joan zen otsailaren 18an, Europako ekiporik onena bere zelaietan munduko ekiporik hoberekin goraletu zago. Eta lau, lau, lau, sardinabakalau, Madridek uste zuela bera zela hamalau.

Harroberriekin lan egiten duten klubentzat sasoi gordinak datozela dirudi. Behar bada, kanpotik etorritako direla eta, ekipoa desegiteko arriskua dago. Baina itxaropena mantentzen dezagun. Lehen igogailuan gora eta behera zebilenak kohete espazialean orbita batzuetara bestera arituko da. Txapeladun zitearen ohitura sendoa hartu dugu eta txapel guztiak irabaztearen lehian parte hartzea ohiko helburua bihurtu zaigu. Eta horretarako ere JAIOKO DIRA BERRIAK.

Osasuna, Errealaren bidetik

Aingeru USOZ

**E**RREALA Osasunak egiten duen futbolaren inspiratzailea da. Nafar taldeak Errealaren antz gero eta haundiagoa du. Baina oraindik kopia txar bat izatea besterik ez du lortu.

Nafarfar jarraitzaileok Erreala admirazio osoz ikusten dugu. Osasunak John Toshacken taldearen antzekoa izatea nahiko gurelako. Bi taldeen artean badira zenbait desberdintasun garrantzitsu hiru posible egiten ez dutenak. Zer falta zaio Osasunari? Lehendabizik, Errealak duen tradizio. Donostiar taldeak tradizio hori lehendabiziko dibisioan hainbat urtetan zehar lortu du, talde hoberean artean ia ia beti egon delako, Osasuna bitartean bigarren eta hirugarren dibisioan zebilelarik.

Gero Errealak bi liga txapelketa bereganatu zituen. Orduarte Nafarroako futbolzaleek bi talde euskaldunen, Athletic eta Errealaren artean erdibitua zeukaten bere begikotasuna. Athletic aini diruduna zen, Erreala berriz hurbilago ikusten zuten. Errealak hoberean izan ahal zela erakutsi zuenean, gehienak Errealaren alde jarri ziren.

Erreala txapeladuna gertatzen bada, Osasunak zergatik ez dezake gauza bera lortu? Nafar taldea urte urte hobetzen doa, baina Errealak duen futbola egiteko erraztasuna falta zaio. Lehen Ormaetxearekin eta orain Toshackekin Errealak futbol ederra inprobisatzen du, beti estilo berbera erabiliz; atzekaldean ondo lotzen ditu etsaien aurrelariak, beti erdikit aurrera pressing handia eginez. Hau partidu zelaiari eta bestearen ere bai.

Osasuna gauza bera egiten saiatzen da, geroz eta hobeto ateratzen zaiolarik. Baina Errealak dituen beste bi gauza falta zaizkio: oldarkortasuna eta erregulartasuna.

Errealak atzean ondo helden ditu partiduak bere atzelari bikain eta atezain ezin hobeearekin. Baina zela erdian eta aurrean oldarkortasuna falta balitzaito bere ahalagin guztiak alferrikakoa izango lirateke.

Errealak Barcelona, Real Madrid eta Atlético de Madrid eta abarren aurka ondo jolastan du, beldurrik gabe, eta gero, Logroñes, Sabadell, Betis edo Valenciaren aurka ez da jokartzen. Gehienetan, baita ere, bi puntuak lortzen ditu. Beti erimto berdintsuan jokatzeko du eta hortik datorkio bere erregulartasuna.

Mila esker, Martin Ugalde

**A**RGIARA idazkitxo bat eraman eta handik ordu gutxitara ikusi ahal izan dute zure arlurkua igandean. El Diario Vasco. Ikusi orduko irakurri dute. Gai berbera erabili dugu; zenbait hitz nagusi ere berdinak... «Euskara eta Askatasunari heldu diogu biok».

Mila esker, bide berean elkarrekin bateratu garelako. Zuk badakizu: ez da ustegabea topo egitea izan; BATEGI-NIK kampaia bultzatzeko elkarrekin -beste hainbiesterekin batera- bazkalduko ere bagara. Bide beretik ibiltzea erabakia ginen.

Baina beldur nintzen inurriena gertatuko e zitzaizkion. Zu lumata ederreko gizona zaitzugu, eta nik baino askozaz elegantereko esango zenuke guzti hau. Denok ikusia da: inurri-andanak, prozesio luzeak joan etorrian... Beren bidea markatuta dute, eta han ari dira bide beretik aurrera

Osasunak, berriz, gauza horiek kopiatu nahi ditu, baina batzutan aurrekaldean partiduak burutzeko oldarkortasuna falta zaio, eta beste batzutan erregulartasun hori galzten du. Adibide bezala hor daude Sabadellen aurka etxean lortu zuen berdinketa edo Sevillaren kontra galdu zuen partidua.

Errealak futbol erraza egiten du. Harmailatik Errealaren futbola ikusterakoan, kirol hau praktikatzeko oso erraza dela pentsatzen da, edonork Jose Mari Bakerok, Begiristainek edo López Rekartek bezala jolatu dezakeela. Osasunari, aldiz, gehiago kostatzen zaio gauzak ondo egitea.

Futbol erraza politena da. Horregatik Errealaren partiduak, nahiz eta batzutan emaitza eskasak bukatu, ikusletentzat ez dira aspergarriak izaten. Futbol erraz hori Osasunarentzat nahi dugu. Aurten zenbait partidutan futbol hori egitea lortu du. Osasuna berriz onean dagoenaren seinale ukagabeta da hau.

Orain zera falta da: Osasunak ematen dituen jokalariek futbolari gisa euren biziazten urte hoberekin heman, lrufean, ematea. Errealak Zamora, Satrustegi, Kortabarría edo Arkonada gabe ez zatekeen inoiz txapeladuna izanen.

Osasunak bere jokalarik aparte eutsi behar die. Hor daude Goikoetxea, Untzeu, Ziganda, Ripodas edo Pizarro Gómez. Hauetako batzuk beste taldeetara joaten badira, Osasunaren bizkarrezurra apurrituko da eta inoiz ezingo dugu txapelketa erantsen. Errealarentzat ere amets bat zen, eta azkenean ametsa errealitate bihurtu zen, eta orain dute ekiporekin berriz ere garaipen gehiago lortuko duela gauza segurua da.

Osasunak Errealaren estiloa kopiatzen jarraitzen du, baina oraindik ikasleak ez du irakaslea gaintzeaz lortu. Nafar futbolzaleek Errealak Sadar ez den beste edozein zelaitan lortzen dituen golak xalotzen jarraituko dute. Erreala berriz txapeladun izango den esperon jarraituko duelarik.

Paulo AGIRREBALTATEGI

eta atzera denek lanean behar diralako hornidurak egiten. Halako batean, zaxtar baldin animalia handiagoren bat -sarritan bere adimen harroarekin esperimentu bihurtu- bat egitera... eta bere hankatarrak desegiten du inurrien bidea. Hor hasten dira orduan denak nora ezean urduri, bidea berriro aurkitu ezinik.

Horrelako zaxtar gertatu zaigu seguruenik. Euskararen bidea «bat egini» irekiztea erabakia ginen hainbat inurri euskaldunok. Eskabadora handiren batekin etorri zaizkigu, markatua ginen bidea desegin, eta harriz onhorrez, abarrez, oztapatuz.

Une batez bigalduta ote gauden susmoa eduki dute. Baina hona hemen berrit bide beretik, batean BATEGI-NIK egiteko, «Euskara eta Askatasunaren bidea ebaki» zeko.

Esker mila!